

KONTU KONTARI**SANTA GRAZIKO PASTORALA**

Uztaileko azken aurreko igandean, hau da, hilaren hogeita hiruan, pastorala ikustera abiatu ginen etxeko lauok. Urte luze dira urteroko hitzordura joaten garela eta bai emazteari, bai hamazazpi eta hamabost urteko semeei eta bai niri, izugarri gustatzen zaigu. Oraingo honetan, pastorala Basabürüko Santa Grazi herrian zen, eta autoa hartuta, bertara abiatu ginen. Egun ederra zen arren, eguzkiak ez zuen aurreko egunetan bezainbeste berotzen, eta hori arras eskergarria zen. Bidean, txoko bat bilatu eta bertan bazkaldu genuen. Hiruak laurden gutxitan Santa Graziko lehen auzoa den Kaxernan ginen, eta zortzi minutu beranduago herri kaskoan.

Entzuna genuen askotan Santa Grazi herriaren edertasunaz aipamen eta esamesak, baina ikusi genuena entzundakoa baino askoz liluragarria egin zitzaigun. Bai, ederra zen, oso! Ede-rra eta ttipia. Ttipia eta ederra. Hango bortüak, hango berde-tasuna, hango etxetxo pirenaikoak, hango arroila sakonak... eta hango eliza ezin ederragoa! Ikaragarri ederra. Eraikin izu-garri berezia. Zoritxarrez ez genuen astirik bertan sartzeko. Hiruak ziren eta pastorala laueta hastekoa. Sarrerak eta ohi-

ko liburuxka erosi eta bertara sartu ginen. Ordurako harmailak aski beteta zeuden arren, oso toki ona topatu genuen oholza edo triatearen aurrez aurreko harmailan. Oso hurbil eserita, zenbait lagun zeuden: Jüje, Iñaki, Beñat, Maddi... eta beraiek agurtuta, gure tokietan eseri ginen. Han lau mila pertsona inguru geunden. Lauetan, puntu-puntu, pastoralaren martxa entzun zen eta arizaleak triatera igo ziren ikusleen txalo beroen artean.

Lehen esan dudana bezala, etxeko lauok pastorala maite dugu, baina orain arte ezagutu dugun pastorala gure historiako zenbait pertsonaiekin lotutakoa izan da: Iparragirre, Etxahun Barkoxe, Zumalakarregi, Agirre presidentea, Sabino Arana-Goiri, Antso Handia, Bereterretx... jakin bagenekien, benetako pastorala, pastoral zaharra alegia, luzeagoa zela (egun bat oso-rik) eta santuen bizitzekin lotuak zirela. Baina horrelako azkena II. Gerla Handia baino lehenago jokatu zutela uste dut. Hori dela eta, guk ez dugu inoiz, ahozko edota idatzizko erreferentzietatik at, molde zaharreko pastoralik ezagutu, eta aurtengoan süjeta Santa Engrazi izatean, beldur geunden ez ote zitzaigun sobera aspergarria egingo. Hasi orduko gure beldurrak desagertu ziren. Lehen perediküa, Santa Grazin, 1992an jokaturako Santa Krutz pastorealean süjeta izan zen Jean-Ives Constantinek eman zuen.

(1)

Agur züer, jente honak,
hor jinik Santa Grazira.
Arte goxo bat züeki
igaraiteko prest gira.

(16)

Gureki düzüe orai,
trajeria hori biziko;

Gero gogoan düzüe
gük bezala etxekiko.

Santa Engrazi antzetzen zuen Joëlle Hüsti süjet gazteak lan bikaina egin zuen, bai bertset andana luzea buruz ematean, eta bai bakarrik abestu zituen bi kantoreetan. Dena-dena primeran atera zitzaien, ekia aski ongi portatu zen, arizaleak izugarri ongi aritu ziren eta güdükak eta kantoreak izugarri ongi eman zituzten. Sophie Larrandabürü kantu eskolatzaile eta zuzendariaren lana agerian gelditu zen. Azken perediküa Erik Alzazebe eta Erik Hardoi gazteek eman zuten bertan geunden ikus-entzuleon bihotza azken zirrarez piztuz.

(1)

Hona, entzüle maiteak,
Engraziren trajeria.
Züeki ürrentü dügüla:
Segürki da berezia.

(2)

Leiendatik haratago
Engrazi da hebenkoa;
Deitürak berak beiteikü
dela gure artekoa.

(4)

Ordüan, Eüskal Herria
hedatzen zen hürrünago.
Saragoiz barnen züan:
Engrazi gütarik dago.

(11)

Egün, prefosta, beste da,
Engrazi Santa beitätü
saldo handian oroek
pastoral hontan aipatü.

Ondoren, ohiko azken kantorea izan zen, Jean Etxegoienek idatzitakoa. Zinez ederra!

(1)

Züen gogoan, hainbeste jente ikustez,
düzüe igaraiten... santagraztarrak girenez?
Zenbat girade sortzez,
besteak odolez,
denak segur batean, bihotz-bihotzez.

(errepika)

Herritarrak, direlarik jüntatzen,
pastoral berriak dirade sortzen,
ordüan laket salduan kantatzen...
kantore zaharretan largatzen,
basahaidetan gozatzen.

Hau entzunik, jendea altxatu zen eta txalo sarta handiz saritu zuen han ikusitako eta entzundako guztia. Izugarri pastoral ona izan zen. Segidan egin ziren antxetetan Gamere-Zihiga udalerriak irabazi zuen mila eta hirurehun euro emanez, eta bertan zeuden gameretar eta zihigatarrak oholtzara igo ziren ohiko muñeñak eta aintzina-pika dantzatzera. Beraiek jokatuko dute hurrengo urteko pastorala: San Frantzisko Xabierreko.

Lerro hauetatik Urdatxeko Santa Grazi herria zoriondu nahi dut egindako lan handia eta ederragatik, eta oso bereiziki, pastorala idatzi duen Aita Junes Casenave-Harigile herriko semea. Aspaldian ezagutzen dut Aita Junes, eta urte luze hauetan bere lumaren ederraz, eta Euskal Herriarekiko eta euskarekiko duen maitasun goxoaz gain, bere bihotzaren apaltasunaz eta bere abegikortasunaz ere jakin dut. Gizon aparta benetan!

Pastoral ugariren idazlea da. Asko jokatuak izan dira: Zumalakarregi, Santa Krutz, Agota, Jesüs..., eta beste asko jokatu ga-

be daude oraindik. Horrez gain, zubererari buruzko gramatika-liburuak, hiztegiak, ipuinak, biografiak eta eleberriak ere baditu plazaratuta. Zalantzarik gabe, etorkizun hurbilean gure literaturaren klasikoetako bat izanen da.

Aurten jokatuako bi pastoralak, lehena maiatzaren zazpian, Mauleko San Frantzisko eskola giristinoko ikasleek emandako *Jesús* izenekoa, eta bigarrena, oraingo Santa Engrazi hau, bereak dira; eta berea da ere, heldu den urtean Gamere-Zihiga izeneko herriak jokatu duen *San Frantzisko Xabierreko* izenekoa. Hiru pastoral historiko-erlijioso hauek pastoral berriaren bilakaeran ziklo bat markatuko dutelakoan nago.

Azkenean, betiko lagunak agurtu ondoren, elizara hurbildu ginen, Iñaki lagunak beti zabalik egoten dela esana baitzigu. Hurbildu ahala, bere edertasuna eta bere handitasuna are eta nabarmenago egin zitzaigun. Erromanikoa bada ere, badirudi zaharragoa dela, eta lehen, duela 1000 urte inguru, eliza bat eraiki zutela gaurkoa eliza dagoen ber tokian. Hugonoteen garaian erre omen zuten eta geroxeago berriro berreraiki. Berezia da oso. Bere dorrea, bere pareta sendoak, bere horma-bularrak..., inguruan dauden hilarriak... Behin, irakurri nion ez dakit nori, musulmanek bizitzan behin Mekara joan beharra daukaten bezala, guk euskaldunok ere, behin gutxienez, San Graziko elizara joan beharko genukeela, gure euskal nortasunaz eta gure izateaz gozatzera eta sakontzera. Eta nire ustez, ez zitzaion arrazoirik falta hori esan zuenari. Hura gure lehen aldia izan zen Urdatxeko Santa Grazin, baina lauok berriro arra-jiteko asmoarekin itzuli ginen etxera.

Elizara sartu eta kanpoan miretsitako edertasuna errepikatu zen barnealdean. Izkinetako batean bazen liburutzar bat zabalik, non bertara hurbiltzen diren askok euren mezuak uzten dituzten. Irakurtzeari ekin genion. Hizkuntza aunitzetan idatzitako mezuak zeuden. Bazirudien, liburu hark Babel txiki baten

berri ematen zuela, mintzaira anitzetako mezuak irakur baititezkeen bertan. Egunean idatzitako mezu gehienak euskaraz zeuden, baina beraien artean bazen oso letra larri eta harroaz espainieraz idatzitakoa. Lotsagarria! Horrelakorik! Juzka ezazu zerorrek, irakurle:

Con dos gotas de sangre y un rayo de sol, Dios hizo una BANDERA y se la entregó al Pueblo español. ¡Viva España! ¡Viva Francia! y ¡Viva Europa!

Felipe.

(Bi odol tanteez eta eguzki izpi batez Jaungoikoak IKURRIN bat egin zuen eta Herri Espainiarrari eman zion. Gora Espainia! Gora Frantzia! eta

Gora Europa! Felipe.)

Non coment! Azpian, beste esku batez idatzirik, espainierazko bigarren mezu bat zegoen:

Y con un poco más de amor, deja vivir a Euskal Herria. Ane.

(Eta maitasun pixka bat gehiagoz, utz ezazu Euskal herria bizitzen! Ane.)

Eskerrak! Apaltasuna harrokeriaren aurka, herri ttikien bizi-nahia herri handien inperialismoaren aurka! Horixe azaldu zizkiguten liburutzar hartan idatzitako bi mezuek. Kanpoko erreallitate liburu hartan mezu bilakaturik.

Beste begirada batez, eskuineko orrialdea ikustatu nuen, eta ingelesez, baina gezi batez testu hispaniko-gurutzatua ongi seinalatzuz bigarren erantzun bat ikusi nuen. Horra hor:

God save us from this kind of people and their deeds. Stop fascism!

(Jaunak salba gaitzala jende mota honetatik eta euren egitadetatik. Gelditu faxismoa!)?

Gero, elizatik atera, autora sartu eta etxe alderako itzulbi-dea hartu genuen. Bideko txoko batean egindako sorgin-afa-

riak indarberritu gintuen. Bagindoazen, Santa Grazitik urrun-
tzen ari ginen... baina gure gogoia eta gure oroimena Santa
Grazin egongo dira betiko.

Joseba Aurkenerena
Urruñan, 2006ko uztailaren 24an.